

### Egin zaitez harpide!

Ekonomiaren KZ etxean hilerdoan jaso nahi baduzu, bidal ezazu ondorengo kupoa honako helbidera:

• 612 Posta Kutxatila. 48080 Bilbo,

• edo idatz ezazu [ekonomiarenkz@leizaola.org](mailto:ekonomiarenkz@leizaola.org) posta helbidera, zure izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa adieraziz.

ABIZENAK: \_\_\_\_\_ IZENA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_ E-MAIL: \_\_\_\_\_

HERRIA: \_\_\_\_\_ P.K.: \_\_\_\_\_



## Garapen Iraunkorra ETEetan

Garapen Iraunkorrarekiko gizarreak duen kezka gero eta sektore gehiagotara zabaldu da. Hori dela eta, sektore ekonomikoa ez da axolagabe azaldu. Garapen Iraunkorra guztion ardura delako, Izaite eta Ihobe bezalako erakundeekin egon gara haien aholkuak jasotzeko. Hona hemen Garapen Iraunkorreko politikak gure enpresa txiki nahiz ertainetan aplikatzeko urratsak.

10-11. orrialdea

## Euskadiko Aurrezki Kutxa izango da BBK eta Kutxaren arteko uztarketaren emaitza

BBK eta Kutxaren arteko bat-egite prozesuan aurrera egiteko kutxa berriaren izena eta logotipoa erabaki dute eta bat-egitearen ondorioz jaioko den erakunde berria Euskadiko Aurrezki Kutxa izango da. Fusioaren ondorioz, Kutxako langileek haren lan baldintzak hobetuko dituzte.

# KUTXA

4. orrialdea



## Akabak Usurbilgo industrialdean izango du egoitza berria

Elkarte eta bulegoetarako altzarietan espezializatua, Akaba merkataritzako balzuak 2001. urtean hasitako egoitza aldaketa amaitu berri du. Gipuzkoako Usurbilgo Atallu industrialdean izango dituzte instalakuntza berriak, duela ia zazpi urte erositako 10.000 metro karratuko lurzoruan, hain zuzen ere. Egoitza berrien salmentan 8 milioi euro inbertitu dituzte.

6. orrialdea

## ALE HONETAN

### • Elkarrizketa



**Eusebio Larrazabal**  
Bizkaiko Foru  
Aldundiko Lana eta  
Trebakuntzarako  
Diputatua

8-9. orr.

### • Erreportajea



**BIKAIN Sariaik:**  
Elay Taldearen  
eskarmetua

12. orr.

### • Elkarrizketa



**Imanol Pradales**  
Bizkaia: Xedeko  
Zuzendaria

13. orr.

### • Lan Eskaintzak

Lanbideko azken  
Lan Eskaintzak

15. orr.

## STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
 E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org  
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48000 Bilbao  
 TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Iais San Jose  
 MAKETAZIOA: Gonzalo Peña  
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaşlegia  
 EGILEA: Leizaola Elkarte  
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonoan.



Bizkaiko Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Bizkaia  
 Ekintza honek Bizkaiko Foru  
 Aldundiaaren Kultura Sailaren  
 laguntza jaso du.



KULTURA SAILA  
 Hezkuntza Politikarako Saiburuordetza  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK  
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
 POLITIKARAKO  
 SAIBURUORDETZA)  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO

## ADITUAREN IRITZIA

## Jesús Murga

IZAITEko Presidentea

ETEak eta Garapen  
Jasangarria

Enpresetako euskal azpiegituraren gehiengo ETEz osatua dago eta datorren urteetan izango duten eronka nagusia Inguruekiko Gizarte Erantzukizuna izango da. Enpresek gizarte bizitzarengan eragin nabarmena omen dute eta hau dela eta, ezin diete gizartearen arazo konponbiderako ekarpenari uko egin. Ondorioz, mozkinen lortpenari baino, enpresetako ikuspegia aberastaren sorpenaren ideia zabalari lotuta egon behar da. Izan ere, Ingurugiro eta gizarteko alderdiekiko ardura erakusten duten enpresek ondorengo txostenetan martxan jarritako neurri sostenagarriak euren negozioak era azpimagarri hobetu dituztela adostu dute. Inguruekiko Gizarte Erantzukizunak enpresengan eragin



baikorra duela esan genezake. Eragin honek salmenta hobegoak, langileen motibazio maila altuagoa, berrikuntzaren sustapena, biztanlearen konfidantza maila altuagoa, enpresaren ospe ona eta merkaturako jarrera garrantzitsua, besteak beste, ekar ditzake. Esan bezala, Inguruekiko Gizarte Erantzukizunak enpresen lehiakortasuna handitzera laguntzen duen eragilea dugu. Horra hor ETEak Garapen Sostengarriaren inbertitzen animatzeko kontuan hartzea.

## KOMIKIA



EZEQUIEL BLAZQUEZ  
[www.blazquezcobo.blogspot.com](http://www.blazquezcobo.blogspot.com)

## GORA / BEHERA

## GORA

## Euskal ekonomia berpizteko Eusko Jaurlaritzako plana

Krisialdi garaietan erakunde publikoen babes funtsezkoa bilakatzen da. Egungo egoera ekonomikoak agerian utzi du berez autoerregulatu daitekeen merkatu erabat libre baten planteiamenduak bere akatsak dituela. Egoera honi irtenbidea emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak, Ibarretxe Lehendakaria buru, Euskal Ekonomia berpizteko Plana aurkeztu du.

Donostiako Miramon Parke Teknologikoan azaroan izandako Planaren aurkezpenean, Euskadiko enpresari nagusien aurrean Ibarretxe Lehendakariak hitza hartu zuen eta garai zailtan enpresa eta erakunde arteko



Eusko Jaurlaritzako planak 12.800 milioi euroko aurrekontua izango du

harremana sendotzearen alde agertu zen. Ibarretxeren hitzetan, "ziur nago gauzak egoki egiten baditugu, krisialditik sendotuak atera gaitzkeela".

Plana honen funtsa euskal enpresetan diru publi-

koaren inbertsioan datza. Aurrekontua 12.800 milioi euro gorakoa izango da, hamar proiektu estrategikoen artean banatuko direnak. Plan honek 2.500 lanpostu berrien sorkuntza aurreikusten du.

## BEHERA

## Alemaniak doministiku egiten duenean, Europak gripea hartzen du

Ekonomia arloko esangura omen da eta azken finean,

Alemania Europako motorra dela esatera dator. Horren ondorioz, germaniar herrialdeko zantzu ekonomikoak arretaz begiratzen dira Europako batzorde ekonomiko guztietatik. Hau dela eta, Europako arduradunek kezka bizi dute Alemaniako Barne-Produktu Gordinak izan duen beherakada, %0,5ekoa, hain zuzen ere. Udako hilabeteetan izan den jardura ekonomikoaren beherapena izan da honen arrazoi nagusienetakoa, analisten ustez.

Bestalde, bere ekonomia garapenaren gelditzea bizi duen Asiako lehen herrialdea dugu Japonia. Horrela, Japoniako Barne-

Produktu Gordinak (BPG) %0,1eko beherakada izan du. Hala ere, eraikuntza-enpreseko inbertsioak %4ko gorakada jaso du. Esportazioek (%0,7an) eta inportazioek (%1,9an) ere gora egin dute.

Euro zonaldeko geldipen ekonomiko bizi duen lehenengo potentzia dugu Alemania, baina ez da bakarri izango. Hasieran herrialde gutxi badira ere, argi dago munduko potentziek azken urteetako lehenengo atzerapen ekonomiko bizi dutela eta herrialde guztietara zabalduko den joera dela, ekonomia mailan gauza gehieneko domino efektu baten menpean funtzionatzen baitute.



Japoniako analistak kezka handiz begiratzen diete burtsari

## ALBISTEAK

## Euskadiko 160 ETE baino gehiago BBK-k eskaintako finantziazio berezira atxiki dira

BBK-k urrian aurkeztu eta ETEi zuzendutako 500 milioi euroko finantziazio berezia arrakastatsua izan dela esan daiteke, asteak pasata, finantziazio honetara atxiki den Euskadiko enpresa kopuruari erreparatzen badiogu.

Horrela, bada, merkatuko lehenetsuen baldintzapean, kaudimendunak direla egiaztatzen duten ETEek kreditu bereziak eskuratzeko aukera dute. Ezohiko finantziazio berezi honen lehengo lau asteetan 160 ETEk mailegu hauek eskatu dituzte, eta aurrezki kutzak onartu egin ditu.

BBK-k kaleratutako txostenaren arabera, enpresa txikiak dira egungo egoera ekonomikoan zailtasun handienak dituztenak, eta arduradunek maileguen partetik handiena eguneroko ordainketei aurre egiteko erabiliko



Euskal enpresek likideziaren beharra dute

zela uste bazuten ere, errealitateak erakutsi du BBK-k utzitako diru hori makina eta azpiegitura berrie-

tan inbertitzeko erabili dutela enpresek.

Enpresen atxikimendu erritmoa ikusita, BBK finan-

tziazio lerro honen luzapenaren alde agertu da, ETEek duten "likidezia ezari" laguntzeko asmoz.

29.000 milioi euro

Espainiar estatuko Ekonomia Ministerioak, bestalde, likidezia falta horri aurre egiteko neurriak ere proposatu ditu. Horrela, ETEek diru-kutxa publikotik datorren 29.000 milioi euroko finantziazioa izango dute, ICO Kreditu Ofizialerako Institutuaren bidez bideratuko dena.

Bideragarriak diren baina diru-falta duten enpresei arnasbidea emateko eskainiko diren berrikuntzak, funtsean, bi izango dira. Batek, 10.000 milioi euroko finantziazio berezia arazoak dituzten enpresentzat, eta, bestetik, dirua itzultzeko urtebeteko atzerapena. Horrela, 2009. urtean, enpresek maileguen interesak bakanrik itzuli beharko dituzte eta kapitala haren negoziatzen geratuko da.

## Arcelorrek azpikontrataturiko 400 lagun kaleratuko ditu

Burdingintzako industriaren munduko liderrak, Arcelorrek, industria osagarriko 400 langileren azpikontratazioari utzi behar izan dio krisialdiaren eraginez. Eskari kopurua "zorrotz" murriztu da, Arcelorren arduradunen hitzetan, eta enpresetako biltegietako stock produktua agortzen saiatzen ari dira, berriak ez erosteko asmoz. Gonzalo Urquijok, Arcelorreko presidenteordeak, eraikuntzako krisialdiak merkatuko atzerakada

orokorra "larriagotu" duela onartu du, etxegintzaren arlo askotan eskariaren beherakada %40ra heltzen baita.

### Erabateko murriztapena

Neurri horrek Espainiar estatuko 1.000 langilerengandik izango du eragina. Horrela, Euskadin, Asturiasen bezala, kaleratuak 400 lagun izan dira eta Nafarroan, 100. Gainontzekoak beste Autonomia Erkidegoetakoak dira. Horrekin

batera, nazioarteko enpresa honek eskaintza merkatuko baldintzetara egokitzeko asmoz, beste zenbait neurri jarriko ditu martxan. Gauzak horrela, Arcelorrek gastu orokorren erabateko murriztapenari ekingo dio, datozen bost urteetan 4.000 milioi euro aurreztu ahal izateko. Era berean, burdingintzako enpresak inbertsioak motelduko ditu, segurtasunari eta ingurumenarekin erlazionatutako inbertsioei lehentasuna emanez.



Idom ingenierritzak nazioarteko azoka aniztatan hartzen du parte

## Idom ingenierritzak Zorrotzaurren izango du egoitza berria

Azken oztopoak gaindituta, Idom ingenierritzak aurrera jarraituko du Zorrotzaurreko antzinako portuko eraikinean bere egoitza berria muntatzeko proiektuarekin.

Ingurumen Ministerioak bete beharreko bi baldintza zehaztu ditu bere txostenean, eta Idom enpresak eragozpenik gabe hartuko ditu bere gain. Horrez gain, Bilboko alkate Iñaki Azkunak babes publikoa erakutsi dio proiektuari.

Lantegi zahar ugari bota dituzte Zorrotzaurren. Idom ingenierritzak bezala, Euskadiko enpresa garrantzitsu askok Zorrotzaurre berrian beraien egoitza berriak jartzeko interesa erakutsi dute, BBK haien artean. Zaha Hadid arkitekto irakiarra izango da Zorrotzaurreko lurraldeko birmoldaketaren egilea. Etxebizitzek, tranbiak eta musika eskolak, besteak beste, osatuko dute Zorrotzaurreko irla berriua.



Arcelorrek ere krisia pairatzen du

## ALBISTEAK

# Arrasateko Korporazio Kooperatiboak (MCC) gastu murrizketa zorrotza gomendatu die bere bazkideei



Eroski kooperatibak soldaten izozketak proposatu ditu datorren ekitaldirako

Krisialdiak ekarri duen eska-riaren jaitsierari aurre egiteko asmoz, MCC Arrasateko Korporazio Kooperatiboak taldeko enpresari gastu murrizketaren politika aplikatzeko aholkatu die. Egungo

egoera ekonomiko okerraren ondorio txarrak minimizatzeke asmoz, gastuei dagokionez, zorrotzasunez aritzeko gomendioa egin die Batzorde Nagusiak. Talde kooperatiboaren barneko en-

presa askok dagoeneko mahai gainean dituzte egungo merkatuko gorabeherei erantzunak emateko itenbideak. Horrela, zortzi kooperatibaz osatutako Fagorrek, datorren urteari begira, 6.000 bazki-

deen soldatei %8ko beherapena aplikatzea planteatu du. Neurri hauek bazkideei helaraziko zaizkie eta aplikatu ahal izateko, erreferendumen bidez berretsi behar izango dira.

## Gabonetako soldata barik

Horrez gain, dagoeneko aplikatuko den beste neurri bat Gabonetako ezohiko soldatari uko egitea izango da. Elkartasun neurri honek 2.604 langilerengan izango du eragina, eta aurrez utziko dirua 128 langileren aurrez utziko erretirorako erabiliko da. Fagorreko Ederlan taldearen zazpi lantegitan, bestalde, urritik abendura doan epealdian, lan-jardueren etaldia egin dituzte ostiralero. Fagorrek mozkinen %98ko beherakada izan du urte honetako lehenengo sei hilabeteetan.

## Soldaten izozketak

Fagor ez da bakarria izan neurri horiek ezartzen. Izan ere, Eroskik ere bere bazkideei soldata izoztea eta urteko interesak ez ordaintzea proposatu die, gastuen murrizketa politikari helduta. Neurri horiek Eroskiko 8.000 bazkiderentzat soilik izango dira aplikagarriak, eta datorren ekitaldian izozketak berrikusi egingo direla azaldu dute enpresako arduradunek, merkatuko baldintzei egokitzeke asmoz.

Iraganean ere tankera honetako neurriak aplikatu zituen Arrasateko Korporazio Kooperatiboak. 80 eta 90eko hamarkadetako krisi larrietan ere soldaten gutxitzeak martxan jarri zituzten, Gabonetako ezohiko soldatari uko egitea edota interesen kapitalizazioa, bestak beste.

## BBK eta Kutxaren arteko fusioaren ondorioz, Kutxa izango da erakunde berria

BBK eta Kutxaren arteko bat-egite prozesuan aurrera egiteko beste urrats bat eman du bi erakundeetako batzordeak. Horrela, kutxa berriaren izena eta logotipoa erabaki dute eta bat-egitearen ondorioz jaioko den erakunde berria Euskadiko Aurrezki Kutxa izango da, aste haue-tan hiru izen desberdin erabili dituzten arren (hain artean, "Abant").

Diseinuari dagokionez, Kutxa izango du izen motz gisa; logotipoak, berriaz, gorri du izena, puntu beltz batekin, zurizko fondo batean. Marka berriak kutxari "bisualki nortasuna" eransten diola adostu dute bi erakundeek, eta Arabako Vital Kutxaren etorkizunerako bat-egiteari atea irekita uzten dio.

Gipuzkoako kutxaren izena mantentzeari dagokionez,

# KUTXA

Kutxa berriaren logoa

erreferentzia gisa.

## Ezohiko ordainketa

Horren ondo-

lurralde historiko horri egindako "keinu" bezala ulertu dute askok, hots, BBK-k Kutxa xurgatu besterik ez duela egin pentsatzen dutenen kontrako planteamendua, hain zuzen ere. Gipuzkoan kutxa berriaren irudia bultzatu behar omen dute, PSEk eta PPK Lurralde Historiko honetan bat-egitearen aurka egin duten kanpainari aurre egin nahi badiote erakunde arduradunek.

Integrazioaren ondorioz, onura gehien jasoko dituzten langileak Gipuzkoako Kutxakoak izango dira. Bat-egite prozesuaren lan hitzarmenaren arabera, BBK-ko lan baldintzak hartuko dira Kutxa erakunde berriaren baldintza berriak adosteko

erreferentzia gisa. Ezohiko ordainketa Horren ondorioz, Gipuzkoako langileek soldata altuagoak jasoko dituzte, lankide bizkaitarrek parekatzeke asmoz, eta ordutegia ere moldatuko dute, astero lau arratsalde lan egitea soilik batean lan egitera igaroko baitira. Horrez gain, aurtan 58 urte edo gehiago betetzen dituzten langileentzat aurretiko erretiroa proposatuko da. Datuen arabera, 250 langile atxikiko dira neurri honetara.

Kutxa berria osatuko duten 6.000 langileetako bakoitzak 1.000 euro inguruko ezohiko ordainketa jasoko du, bat-egite prozesua arrakastatsua izan dadin egingo dituzten ahaleginak saritzeke asmoz.

## Kontsumorako Prezioen Indizeak %0,7 egin du gora urrian

Estatistika Nazionalen Institutuak argitaratu dituen datuen arabera, Kontsumorako Prezioen Indizeak 0,7 puntuko igoera izan du urrian. Irailarekin alderatuta, Euskadi eta Errioxa izan dira goiera nabarmenena izan duten Autonomia Erkidegoak.

## Etxebizitza, igoera handiena

Lurralde Historikoei begirata, Arabak %0,9ko igoera izan du, Gipuzkoak %0,7koa eta Bizkaiak %0,6koa. Jantziak eta oinetakoak izan dira gehien igo direnak, 11 punturekin, hain zuzen ere.

Irakaskuntzak eta etxebizitza ere gora egin dute, %3,1 eta %0,6ko portzentajeekin, hurrenez hurren. Behera egin duten atalak, bestalde, honakoak izan dira:



Urriko prezioen gorakada 0,7 puntukoa izan da

garraioa (-2,4), aisialdia eta kultura (-0,7), eta jatetxeak, kafetegiak eta hotelak (-0,2). Urteko tasari dagokionez, prezioek %3,7 egin dute gora. Etxebizitza (%7,5) izan irakaskuntza (%5,3) izan dira igoera honetan eragin handiena izan duten alorrak.



Cappuccino



Latte macchiato



Espresso



Cappuccino Ice



Chococino

# DEIA te trae el COFFE SHOP a casa

Consigue con **DEIA** esta fantástica cafetera

Por el exclusivo precio de...

**109** <sup>90€</sup>  
+ 15 cupones

**CARTILLA**  
**domingo 7**  
primer cupón  
**lunes 8**



Cafetera de cápsulas  
**NESCAFÉ® Dolce Gusto®**

+ Caja de  
**16 cápsulas**

**GRATIS**



Cápsulas  
disponibles en  
las superficies  
comerciales

#### CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS:

- 1.260 W
- La única máquina capaz de servir una gran variedad de bebidas con café, chocolate y leche
- La única máquina del mercado capaz de dispensar leche de manera cómoda y limpia
- Bomba hidráulica de 14 bares de presión
- Presión de extracción variable automática para obtener unos resultados óptimos
- Recipiente de agua extraíble de 1,3L
- Dimensiones: 23 x 33 x 30 cm (ancho-alto-fondo)
- Práctico bandeja recogegotas regulable en altura

Promoción exclusiva en oficinas comerciales de DEIA

**Imprescindible realizar reserva telefónica**  
[ Información detallada en cartilla ]

Saborea deliciosos espressos

La única capaz de preparar bebidas  
calientes, frías y chocolate



**KRUPS**

**NESCAFÉ**  
**Dolce**  
**Gusto**

**DEIA**

Oferta especial suscriptores: 99 €. Haz tu reserva en el teléfono de atención al suscriptor: 94 459 91 16 (lunes a viernes de 8.30 a 13.00 horas)

## I+G+i ALBISTEAK

# Nafarroako Unibertsitateak tronboenbolia-kasuak erdira jaisten dituen sistema berria sortarazi du

Nafarroako Unibertsitate Klinikako espezialista-talde batek zainetako tronboenbolien gaixoen kasuak erdira jaitea lortu du. Haiek sortutako alerta-informatiko baten bidez, gaixoek tronboenbolia bat izateko duten arriskua ebaluatzen du, eta arrisku horri buruz ohartarazi. Sistema informatiko honek gaixoen historia klinikoak kudeatzen ditu eta honek aplikazio bat sortzen du. Horrela, horrek ospitaleratutako gaixo guztien tronboenbolia-arriskua zenbatetsi, kalkulatu eta puntuatu egiten du egunero, arrisku-faktoreen arabera.

Zainen barruan odola koagulatzea da tronboenbolia. Honen arrisku nagusia koaguluak biriketara iristea izaten omen da.

Gaur egun, osasun-arazo garrantzitsua da, Espainiar estatuan urtero 100.000 pertsonari eragiten baitio eta horra hor tronboenbolien prebentzioa hobetzen lagunduko duen sistema berritzaile honen garrantzia.

## Nafarroako Unibertsitateko lana

"Thrombosis and Haemostasis" aldizkarian argitaratu du ikertzaile taldeak erreminta informatiko berri honek ekarri dituen emaitzak. Lan honetan parte hartu dute Nafarroako Unibertsitateko Hematologia, Dokumentazio, Kalitate, Neurobiologia eta Informatika Zerbitzuko doktoreek.



Sistema- informatiko berritzailea gaztu duen ikertzaile-taldea

# Akabak Usurbilgo industrialdean izango du egoitza berria

Elkarte eta bulegoetarako altzarietan espezializatua, Akaba merkataritzako bal-tzuak haren egoitza aldaketa amaitu berri du. Usurbilgo Atallu industrialdean izango dituzte instalakuntza berriak, duela zazpi urte erositako 10.000 metro karratuko lurzoruan, hain zuzen ere.

Hiru solairuetan antolatuta, "lantegi berriak enpresaren izpiritu modernoa eta berritzailearen isla da", dio Akabako Zuzendari Komertziala Iñigo Ramirez Zabalak. Egoitza berri honetan 8 milioi euroko aurrekontua inbertitu dituzte.

Akabako arduradunek pozik daude aldaketarekin. "Instalazio berriek gure ekoizpen

prozesuetan hobekuntzak sartzen lagunduko dute", adierazi du Ramirez Zabalak, "gastuak murrizten, produktuak eta enpresaren irudia parekatzen, diseinuaren ideia hobeto komunikatzen eta etorkizunari begira, merkatu berrietan sartzea bezalako erronkak gure gain hartzen", alegia.

## Etorkizun baikorra

Akaba enpresak 80 langile ditu. Egungo baldintzak onak ez badira ere, datorren ekitaldia "baikortasunez" aurreikusten du enpresako batzordeak, Ramirez Zabalaren hitzetan. Izan ere, 4.000 metro karratuen erreserba mantentzen dute datorren

urteetan zabalakuntza prozesu bati ekiteko.

Bere esportazioaren %50a bidaltzen du kanpora, Europa, AEB, Australia, Japonia eta Singapurrera, hain zuzen ere. Asiako merkatu berriak maitatu ditu, hala nola, Sudafrika, Mexiko eta Europako Ekialdea, besteak beste.


Akabak 1986an hasi zuen euren jarduera ekonomikoa. Hasiera batean, Javier Mariscal eta Santiago Calatrava bezalako artistekin lankidetzak hitzarmenak izan zituen abangoardiako altzarien ekoizpenean. Hurrengo urteetan, haren bezero potentzialen taldea zabal-tzeko asmoz, elkarteei zuzendutako produktuen ekoizpenei ere ekin zion Akabak.

Gaur egun, enpresa gipuzkoarrak hiru arlotan ditu bereziki haren bezero laginak. Batetik, ospitalak, unibertsitateak, hotelak eta biltzar jauregiak bezalako elkar-tetik. Bestetik, autobusa, metro eta tren bezalako bidaiari-entzako geltokiak. Eta azkenik, enpresa munduko bulegoak izaten omen dira gehienbat Akabaren bezeroak. Gipuzkoako enpresak sari anitz jaso ditu urte hauetan, haien artean, Enpresa Bikaintasunaren Principe Felipe Saria azpimarratu dezakegu.



Arrasateko zuzokideek duela bi urte olio birziklitzeko sistema hura dutela eskura

# Gripearen epidemia garaiz detektatzen duen sistema garatu dute



Gripearen birusaren garaizko detekzioa garrantzi handikoa da

Adineko pertsonetan eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonetan bereziki, gripea hilgarria izan liteke. Honi aurre egiteko botika antibiralak badaude, baina horiek garaiz hartzen badira soilik dira eraginkorrak. Arazo horrek, diagnostikorako metodo berri horren beharra indartzen du.

Ildo honetan dihardute Ikerlan-IK4k eta Gaiker-IK4k. Bi zentro hauek, Donostiako Ospitaleko laguntzarekin, Bioef izenarekin ezagutzen den Europako egitasmoan parte hartu dute. Proiektu horren helburua da nazioartean gripearen epi-

demia kontrolatzeko modua goitik behera aldatuko duen gailu mugikor bat diseinatzea. Gailu horri esker, gripea 30-60 minutuan detektatu du sistemak. Gaur egun 24 ordu behar dira hura soilik dira eraginkorrak. Gripearen diagnostikoaren denbora nabarmen murriztuz, gaixotasuna berehala tratatu eta haren jarraipena egiteko aukera ahalbidetuko du.

Ikerketa horretan Europako beste zenbait bazkidek ere parte hartzen dute, eta proiektua VII. Esparru Programaren barruan dago. Egitasmo honen aurrekontua lau milioi eurokoa izango da.

**Gure glazarte erantzukizunak ingurumena  
zaintzera behartzen gaitu...**



### **...malla handiko teknologiarekin**

ITP Taldean ahalagin handia egiten dugu kerketa alorrean hegazkin-motor eraginkorragoak eta atmosferara CO<sup>2</sup> gutxiago isurtuko dutenak diseinatu eta egiteko, teknologia horien garapenean barikuntzak eginez, eta etengabe hobatzeko talde-lana bultzatuz. Eta horregatik, Ingurumen alorreko Balmen Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara. Ingurumena errespetatzeari dagokionez altzindari izateko jari gurean helburua betetzen ari gara.



[www.itp.es](http://www.itp.es)



**GRUPO**  
Industria de Turbo Propulsores, S.A.

## ELKARRIZKETA

### EUSEBIO LARRAZABAL

*Bizkaiko Foru Aldundiko Lana eta Trebakuntzarako Diputatua*

# “Askotan proiektu bat ez da bideragarria izaten merkatua ezagutzen ez dugulako”

Egungo egoera finantzarioaren ondorio zuzenenetarikoa langabezia tasen gorakada da. Pertsonak lanik gabe geratzen diren heinean, kontsumoa moteldu egiten da eta berankortasuna gora doa. Horren ondorioz, bankuek kredituak emateko baldintzak gogortu egin dira, eta enpresa berrien sorrera murriztu egiten da. Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatuarekin solasean egon gara, Foru Aldundiak gurpil zoro honetatik irteko asmoz martxan jarriko dituen itenbideak ezagutzeko.

**2008ko ekainean enpleguaren sorrera sendotzeko inbertsio dekretuak jarri zenituzten martxan Lan eta Trebakuntza Sailetik. Krisialdiaren eraginez, laguntza ekonomikoak murrizteko arriskua al dago?**

Ez dakit murriztu, baina, behintzat, bai egokitu behar izango ditugu. Horretarako, Enpleguaren Behatokia sortuko dugu Sailean, lau sindikaturekin eta enpresarekin. Denei entzun ondoren, pausoak emango ditugu, enpleguaren aldetik, enpresari laguntzeko, eta, azkenik, presuntakuntzen aldetik. Azterketa batean dihardu orain, zera aztertzeko: unibertsitatean zer ekoizten den ezagutzea eta gizarteak zer bereganatu dezakeen; ekoizten denaren eta eskatzen denaren arteko oreka dagoen aztertzeko, hain zuzen ere. Gerta liteke norbait kanpora joan behar izatea, hemen ikasitakoa behar ez delako, adibidez. **Ekintzaletasuna: zein da bere bilakaera azken urteetan? Gizarteak benetan gorraipatzen al du ekintzailea?**

Hemen dagoen ekintzaletasuna ez dut esango beti egon den modukoa denik, baina ahal den neurrian, esango nuke nahiko arra-



Larrazabal Diputatua Bizkaiko Foru Aldundian duen bulegoan

kastatsua dela. Dena den, hemen arrakasta neurtzeko momentuan, epe laburrean neurtzen badugu, behar bada ez da izango nahi gure keena. Epe ertain eta luzera neurtuta, beste emaitza batzuk eman ahal ditu. Egiaztatuta dago krisialdiak daudenean, proiektu berri gehiago ateratzen direla. Eta hori, behar bada, areagotu egingo da kanpora doan jendearekin. Guk hori kontuan hartzeko asmoa daukagu, eta laguntzak areagotuko ditugu, horrelako kasuak gugana etortzen badira.

**Erakunde batzuek, Innobasque bezala, ez dute uste Euskadin aditu-ihesaldirik dagoenik. Beste batzuek, ordea, EHUKo errektoreak bezala, baietz diote. Nolakoak dira Lan eta Trebakuntza Sailetik aditu-ihesaldiak aurrezaintzeko sustatzen dituzten programak?**

Programa batzuk ditugu. Bata, joanekoa etortzea da. Bigarrena, espediente onekoak fitxatzea eta trebakuntza jasotzera kanpora bidal-

tzea litzateke. Eta, azkenik, hirugarren programa bat dugu, nahiz eta nahikorik ez izan: baten bat ekarri behar denean, ekartzea. Dena den, hiru programa horiek beste programa bati lotuta egon behar dira, ez baitira programa zabalak. Guk ematen ditugun laguntzak ez daude adituari zuzenduta, baizik eta pertsona hori ekarri nahiz kontratatu nahi duen erakundeari, enpresari edota unibertsitateari, eskabidea egin ondoren, onesten badugu. Esan bezala, joandako bat ekartzea izango litzateke. Enpresek egiten dizkigute eskariak: adibidez, enpresa batek esan dezake, "tipo bat dago, oso espediente onekoa, guretzat nahi duguna" eta guk hura kontratatzeko laguntzak ematen ditugu,

## “Enpresa txikietan arazoak areagotu egiten dira”

Bizkaiko Foru Aldundiak enpresa familiarren ekonomia berpizteko neurri berriak hartu ditu. Horien artean, Ondare Zergaren deuseztatena eta 65 urtetik gorakoentzako zerga-kenkariak azpimarratu daitezke. Neurri horien ondorioz, Aldundiko aurrekontuan 147 milioi euro gutxiago izango dira, arduradunen aburuz, "enpresa familiarren esku egongo den dirua", hain zuzen ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntzako foru diputatu Eusebio Larrazabalen ustez, "enpresa txiki eta handietan berdin gertatzen da baina egia da txikietan arazoak areagotu egiten direla". Horren haritik, "iaz, EHUren laguntzarekin, enpresa familiarren katedra jarri genuen martxan". Larrazabalen hitzetan,

"arazoak sortzen dira batez ere familia eta enpresaren arteko hartu-emanetan", hots, "bi harremanak desberdintzea eta horren profesionalizazioa sustatzea". Oinarritzko arazoa, Larrazabalen aburuz, "oinordetza noiz eta nola egin" da, "jabeak pausu hori nola eman nahi duen", hain zuzen ere.

Katedra hori ikerketa bat egiten ari da: "enpresarien eskuetan utziko dugun jakintzagai anitzeko lantaldea sortzera goaz, oinordetza prozesu horretan jabeek laguntzeko". Zeintzuk izango dira lantalde honen ardurak? "Bateik, jabeak zer egin beharko lukeen komentatzeko", azaltzen digu Diputatuak, "eta bestetik, berak erabakita badu pausu hori ematea, laguntza eskaintzeko".

## ELKARRIZKETA

edo "gure langile bat bertan hezkuntza berezia jasotzeko Txinara bidali behar dugu, edo Alemaniara". Horretan datza gure lana. Gero, fitxajeak daude. Enpresa batek esaten digu, esaterako, "nik espezialista, teknikari nahiz ikertzaileen bat beharko nuke; Polonian dago bat eta ekarri nahiko genuke". Harrera izeneko beste programa bat ere badugu, jende hori etortzen denean bizilekua, umeentzako eskola eta bestelakoak aurkitzen laguntzeko, hots, lehenengo lurrartzean laguntzeko. Askotan, paperen tramitazioan ere laguntzen dugu. Harrera programa hau 35 pertsona inguruk erabili dute eta beste 19 pertsona fitxatu genituen iaz, hots, kanpotik ekarri, denak proiektu bati lotuta.

#### Gazteek martxan jarritako enpresek laguntza gehiago beharko lituzkete?

Askotan, hori saltzen da, eta ez dut uste horrela denik. Esate baterako, gauza bat da proiektu bat izatea eta beste bat, proiektu hori bideragarria izatea edo bideragarria egiteko baliabide ekonomiko nahikorik izatea. Enpresa txiki batzuk muntatzea oso erraza da: bufete bat, ile-apandegi bat, informatika denda bat... Autoenplegua esaten den hori. Industria mailan hasten bazara enpresa bat muntatzen, hasteko

egin behar duzun inbertsioa handia izango da. Orduan, nahiz eta laguntza handiak izan, gainontzekoa ere behar izango duzu, eta ez baduzu, ezinezkoa izango da negozioa aurrera ateratzea.

#### Ekintzale askoren akatsa izaten omen da ideia bategin negoziario muntatzeko aski dela pentsatzea.

Horrela da, bai. Askotan, proiektu bat ez da bideragarria izaten merkatua ezagutzen ez dugulako. Noiz izaten da posible? Zure proiektuaren sektorea ezagutzen duzunean. Nola ezagutu dezakezu? Beste baten kontura sektore horretan lan egiten duzunean. "Ideia bat daukat, proiektu bat daukat, emadazu laguntza ekonomiko eta ni hasiko naiz": eskema hori ez da hain erraza. Bai proiektu batzuetan, adibidez, inbertsio txikiak behar dituzten negozioetan, esan bezala. Baina inbertsio handiko proiektuetan, esperientzia, merkatuaren ezagutza eta dirua, besteak beste, beharrezkoak dira.

**Enplegu-erregulazioko espedienteak aurkeztu dituzte enpresa askok, azkena, Bridgestone. Espediente hauek xehetasunez behatzen al dituzue? Ez al da posiblea zenbait enpresek, krisiaren aitzakipean, laguneren kaleraketa**



22 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urtean Lana eta Trebakuntzarako sailak

#### egitea mozkinen gorakada izateko?

Enplegu-erregulazioko espedienteak Eusko Jaurlaritzak begiratzeko dituzte, ez Foru Aldundiak. Guk egiten duguna da, ditugun aukeren bidez, enpresei laguntzea. Baina enplegu-erregulazioko espedienteak euskal Gobernutik kontrolatzen dute. Krisialdia aprobetxatuz, enpresek langileen kaleraketa gauzatzeari buruz, nik ez dut uste holan denik.

Bi hitzen artean bereiztu behar dugu. Bata da negozianteena. Honek edozein momentuan negozioa egiteko mota guztietako erabakiak har ditzake. Eta bestea da enpresaria. Ziur nago Euskadin ditugun enpresariak krisiaren baldintzak erabili dituztela enpresa eta inguruarentzako aberastasuna, eta haien artean, nola ez, sortzeko. Enplegu-erregulazioko espedienteak ezartzen badira, enpresaren beharrezko

hortik igarotzen delako izango da. Kontuan izan behar da enpresaren iraupena bermatzeko kasu askotan gaurko egunetan sendotzen dela. Momentua hau negozioa egiteko baten batek erabil dezakeela? Ziur baietz baina nik esango nuke hori ez dela enpresaria, baizik eta negoziantea. Mozkinak igotzeko langileak kaleratzea, ez dut uste enpresari batek egingo duenik, beste klase bateko pertsona batek egingo lukeelako.

## 22 milioi euro formakuntza eta lanaren sustapenerako

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntzako Sailak 2009. urterako 22 milioi euroko aurrekontua izango du. Diru honek langabezian dauden eta merkatutzeko zailtasun bereziak dituztenei laguntzea izango du helburu eta baita ekintzatasun haren egitasmoak garatzen laguntzeko ere. 22 milioi haieztatik, 11.257.459 euro enplegura dedikatuko dira eta bestelako 8.255.046 euro, formakuntzan inbertituko dituzte.

Horrez gain, hitza emanda dituzten proiektuentzako jarraipen ekonomikoak mantenduko direla berretsi du Larrazabalek. "Laburbilduz, datorren egoera berriari egokitu gara", azaldu du Diputatuak, "krisialdiatik ateratzen laguntzeko talde berriei formakuntza emango diegu, langabezian edota enplegu-erregulazio espedienteak jasotzeko arriskuan daudenei bereziki"

#### Formakuntza:

- Langabezian dauden pertsonen merkatutzeko errazteko nahiz lan egiten dutenen lanpostua sendotzeko.  
**GUZTIRA: 917.046 €**
- Lanbidea duten pertsona taldearen lan espezializazioa garatzeko.  
**GUZTIRA: 617.000 €**

#### Enplegua:

- Enpleguaren sustapenerako.  
**GUZTIRA: 1.795.000 €**
- Emakintza egitasmorako.  
**GUZTIRA: 144.000 €**
- Hobelari programarako.  
**GUZTIRA: 750.000 €**
- Guztilan egitasmorako.  
**GUZTIRA: 99.000 €**



Larrazabal, elkarrizketaren une batean

## ERREPORTAJEA

# Garapen Iraunkorra: iraunkorrak diren ETEak sortzea

Garapen Iraunkorrarekiko gizarteak duen kezka gero eta sektore gehiagotara zabaldu da. Hori dela eta, sektore ekonomikoa ez da axolagabe azaldu, Garapen Iraunkorra guztion ardura dela onartu behar baitugu. Horren ondorioz, enpresa txikiek eta ertainek inguruarekiko ardura erakutsi dute, eta Garapen Iraunkorreko ikuspegiaren ildoak beraien negozioetan aplikatzeko informazio bila jardun dute gero eta gehiago. Nora jo? Nola garatu negozioa eta dirua irabazi, Ingurumenarekiko kaltea urtez urte handitu gabe?

Negoioen garapenak produkzio maila handiagotzea dakar. Horrek gero eta gehiago kutsatzea dakar ondorio modura, eta gorpil zoro hori apurtzeko, enpresa bakoitzak, lehenik eta behin, aztertu behar du bere negozio mota kontuan izanda zein izan daitekeen enpresak Ingurumenarekiko har dezakeen konpromisoa. Iritzi horretakoa da Kepa Izaguirre ere, A&B Laboratorios enpresa gasteiztarreko lan-kidea. Izaguirreren iritziz, "lehenik eta behin, zuzendaritzaren partetik konpromiso tinkoa izan behar da", hots, "ingurumenarekiko ardura duten enpresen zuzendariak izango dira proiektu berdeak

nak". Ondoren, "Ezarpn Taldea sortzea" izango litzateke hurrengo pausoa, hau da, "ekintza konkretuak aurrera aterako dituztenak", hain zuzen ere.

#### Ihobe: ekimen publikoa

Ezarpn prozesu horri hasiera emateko, ezinbestekoa dira hezkuntza eta informazioa. Horretarako, Izaguirrek dio Ihobe bezalako organoetara jotzea gomendagarria bilakatzen dela. Ihobe "Eusko Jaurilaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko proiektuaren funtsezko alderdia" bezala definitzen du web orrialdeak, "ingurumen-politika ren aurrera atera ahal dituzte-

### Ihobe-Line: ETEentzako laguntza zuzena



IHOBE-Line ETEren zalantzak argitzeko adituak osatutako organua dugu. Ingurumenari buruzko telefonoren bitarteko informazio-zerbitzu hau dohakoa da eta Garapen Jasangarria negozio bakoitzean nola aplikatu, euskal legedia edota Eusko Jaurilaritzako dirulaguntzaz galdetzeko balio du.

900 15 08 64  
Orduetgia: 9-13 h / 15-17 h  
ihobeline@ihobe.net



Bereziki kutsatzen duten enpresek Garapen Iraunkorrarekiko atxikimendua erakutsi behar dute

Laguntza Zerbitzuak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ematen dituen diru-laguntzak Eusko Jaurilaritzan eskatzeko erraztasun guztiak eskaintzen ditu.

#### Izaite: ekimen pribatua

Informazioa eta beharrezkoak diren tresnak bereganatzeko, Euskadi mailan,

Izaite elkarteak laguntza eskaintzen die enpresa ertainei eta txikiei (ETE). Izaite Iraunkortasunaren aldeko Euskadiko Enpresen Elkarte da, eta oinarriko kontzeptu bezala hazkunde ekonomikoa eta ingurumen eta gizarte-politika ditu. Zuriñe Zubi Izaiteko kideak dioten bezala, elkarteak, "autonomia mailan, garapen

iraunkorraren sustapenari dagokionez erreferentzia" izatea du helburu nagusi.

Izaitek ETEei eskaini diezaiekeen, batez ere, hezkuntza da. Urtean zehar kongresuak, hitzaldi-mahaia eta elkarrizketa-foroak prestatzen dira, betiere, "enpresen bikaintasunari, gizartearen aurrerakuntzari eta garapen iraunkorri laguntzeko".

## ERREPORTAJEA

## Izaiteren kideak izateko baldintzak

Bere web guneak argi adierazten duen legez, Izaiteren kideak izango dira "iraunkortasunarekin konpromiso tinkoa erakutsi eta gainera hurrengo baldintzak betetzen dituzten merkataritza-sozietateak", hala nola:

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea, edo gutxienez bere produkzio-zentroak bertan izatea
- Eusko Jaurlaritzaren Iraunkortasun Konpromisoari atxikita egotea
- ISO 14001 eta/edo EMAS ereduaren arabera Ingurumen Kudeaketa eta OHSAS 18001, UNE 81900 edo antzeko erreferenteen arabera lan-arrikuaren Prebentzio Sistemaren bat aplikatuta izatea
- Erakundearen estrategian kudeaketaren bikaintasunaren bidean aurrera egin baimentzen dituzten gizarte eta ingurumen arloetan konpromisoak barneratuta izatea
- Bere negozioaren beharrei egokitutako hornitzaileen ingurumenerako trakzio aktibitateak erakustea

Izan ere, eskarmentuen elkar-trukatze horretan aurki daitezke elkarte honen gakoak: enpresa desberdinek ingurumenarekiko errespetuzko joerak nola aplikatu dituzten, hain zuzen ere. Horrez gain, doako zerbitzu berezia ere eskaintzen du Izaitek: enpresa batek Ingurumenarekiko konpromisoa erakutsi eta aholkularitza lana jaso nahi badu, Izaitek negozio bakoitzarentzat diseinatutako proiektua doan egiteko aukera eskaintzen du.

Proiektu bakoitzaren bereizgarriak aparte, Garapen Iraunkorraren estrategia ETEetan landu ahal izateko, bi urrats dituen honako prozesu hau jarraitzea gomendatzen da:

- Gure enpresak ingurumenean sor ditzakeen kalteak identifikatzea.

- Eragin negatibo horiek minimizatzeke eta garapen-aukera berriak sortzeko ekintzak aplikatzea, kontuan izanda gure negozioaren izaera sozial eta ekonomikoa.

### A&B Laboratorios enpresaren eskarmentua

Adibide modura, Kepa Izaguirren enpresaren esperimentua dugu. A&B Laboratorios Arabako enpresa dugu, eta Bioteknologia dute lehengai, produktu kimikoak, alegia. Izaiteren kideak dira, eta Garapen Iraunkorraren aplikazioaren isla haien produktuen ekodiseinua eta ekoetiketak dira. Izaguirren hitzetan, "ekodiseinuari dagokionez, Estatu mailako

lehenetarikoen enpresa dugu A&B Laboratorios", eta, horren ondorioz, sari ugari jaso dituzte.

### Gomendio orokorrak

Amaitzeko, hona hemen Garapen Iraunkorraren aplikazioarako elkarte desberdinek ematen dituzten aholku batzuk. Enpresa bakoitzaren izaera partikularra kontuan hartu behar bada ere, orokorrean, honako ildo hauek daude ETEen esku:

- Iragarritako klima-aldaketaren eragin kaltegarriak ekiditea: hala nola, uholde-arriskua, aurrerantzean lantegiak uholdegu-neetatik urrun kokatuz, adibidez.



Izaitek, Jesús Murga presidentea buruan (argazkian, erdikoak) hitzaldi askotan parte hartzen du

- Kanpoko tenperatura-aldaketak eta energia-kontsumoa minimizatzen dituzten eraikuntza iraunkorreko irizpideei jarraitzea.

- Besteei klima-aldaketaren eraginetara moldatzen lagunduko dieten zerbitzu edo produktu berriak garatzea.

- Klima-aldaketa arintzea, berotegi-efektuko gasen emisioak eta erregai fosilen kontsumoa murriztuz; energia aurrezteko eta haren erabilera arrazionalizatzeko neurriak ezartzea, besteak beste.

- Irabazi ekonomikoak lortzea, hirugarrenei emisioak eta klima-aldaketak duten eragina murrizten lagunduko dieten teknologia garbiak, produktua eta zerbitzuak garatuz.

## Eusko Jaurlaritzaren 2002-2020 urterako Garapen Iraunkorraren euskal ingurumen estrategia

Eusko Jaurlaritzak haren plana aurkeztu zuen 2002. urtean, egun indarrean dagoena. Entrepresa batean iraunkortasunarekin erlazioa duten praktika onak garatzeko Eusko Jaurlaritzak argitaratutako ildoak kontuan hartzea gomendatzen da:

### Ingurumen-helmugak

1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua
3. Natura eta biodibertsitatea babestea
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea

### Bete beharreko baldintzak

1. Ingurumen-aldagaiak beste politika-alor batzuetan kontuan hartzea
2. Indarrean dauden legeak eta beren aplikazioa hobetzea
3. Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea
4. Herritarrek, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukide bihurtzea eta beren jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzea
5. Ingurumen-alorreko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza



Ingurugiroaren etorkizuna guztion esku dago, baita enpresen esku ere

## ERREPORTAJEA

# Elay Taldea: saritua izan den euskararekiko ardura

**Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak azaroaren 11an banatu zituen Bikain Ziurtagiriak urtearen hasieran izena eman eta ebaluazioak gainditu zituzten enpresen artean. Enpresetan eta merkatal-guneetan euskararen presentzia areagotzeko asmoz, Ziurtagiri hauek publiko zein pribatu diren lan-guneetako euskara maila aztertu eta saritzea du helburu.**

Guggenheim museoan izandako emanaldian Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak Ziurtagiriak banatu zituen. 30 bat enpresak izan dira Bikain Ziurtagiria lortu izan dutenak. Enpresen gehien-goia, 22, zerbitzu alorrekoa da eta gainerako 8ak, industria-sektorekoak. Horieta 7 enpresek oinarritzko mailako Ziurtagiria lortu dute, 17k erdiko mailakoa eta beste 6k, goi mailakoa. Urrezko Ziurtagiria jaso duten sein lantegien artean industria arloko bakarra Elay Taldea izan da. Gipuzkoako enpresa honen arduradunekin solasean egon gara, lortutako goi mailako saria haiekin ospatzeko asmoz.



Elay enpresaren sarrera

## Euskararekiko 15 urteko ardura

Antzuolan (Gipuzkoa) 1965ean sortutako kotxeen industrietara dedikaturiko enpresa, Elay Taldeak 90ko hamarkadan eman zituen euskararen sustapenerako lehenengo urratsak. Elayko Me-

trologiako arduraduna Ana Jesus Narbaizaren hitzetan, "Hizkuntza Politikaren kudeaketa 1992an hasi zen", urte horretan bertan izandako Batzar Orokorrean langileek euskara planaren onarpena berretsi zuten, alegia.

Aspalditik dator euskararekiko Elayk duen kezka. "Duela 15 urte hasi ginen hizkuntza kudeatzen", dio Ana Jesusek, "eta euskararen ezarpenak eraman duen abiadura denon artean sortutako erritmoak agindutakoa izan da". "Edozein kudeaketak bere ebaluazioa behar du sistematikoki aurrera egiteko" eta horren ondorioz Bikain Ziurtagirieta egitasmoan izena eman zuten. Dagoeneko gauza asko aldatu omen dira, "1992an lana gazteleraz egiten genuen eta orain, beriz, lana euskaraz egiten dugula". Horretaz aparte, "lanerako beharrezkoak diren baliabide materialak eta pertsonak" prestatu behar izan dituzte.

## Gazteleratik euskarara

Nola baloratzen du Elay urrezko ziurtagiriaren lorpena? "Aitormentzat hartu dugu", dio Ana Jesusek, "urteetan egindako lanak sinesgarritasun handiagoa ematen baitio Elay Taldean langileek eta zuzendaritzak aurrera eraman duten ibilbideari". Elayko arduradunak ez du Ziurtagiria "sartit" hartzen. Bere ustez, "modu naturalean eta inongo traumarik eta konfliktorik sortu

gabe" lana gazteleraz egiteko euskaraz egitera pasatu dutela erakutsi egin baitute.


Elay Taldea, lanean eta euskaraz, "eredu aintzindari" hartua izan da aspalditik. "Gu eredu izatea ongi baloratzen dugu", onartzen du Ana Jesusek, "eta harro gaude lortutakoaz". Izan ere, "benetan pozten gaitu beste hainbat enpresa ere bide honetan sartu direla ikustek eta beraiek egingo duten bidea ere eredugarria izango dela beste batzuentzat jakiteak". Haien funtsa honako hau izan da, "lana, euskara ikasi eta erabiltzeko gune bezala erabiltzea, langileentzako elementu motibatzailea bihurtuta", hain zuzen ere.

## Pertsonetikiko errespetua

Automobilgintzako merkaturuan eta serie handiko beste merkatu batzuetan, ebaketa zehatzez nahiz beste teknologia batzuen bidez egindako piezak ekoitzen ditu Elayk. Industria alorreko enpresa izanda, Bikain programaren irizpideak betetzeko zailtasun handiagoak izan omen dituzten galdetu diogu Ana Jesusari. Bere aburuz, "hizkuntza politikaren ezarpena berdina da sektore guztietan". Hala ere, "pertsonen zor diegun hizkuntza erabiltzeko errespetua" nabarmentzen du, hots, "eus-

kara ikasi nahi izan ez dutenei eta euskara ikasi dutenei".

"Bikaineko esperientzia positiboa izan da", aintzatesaten du Ana Jesusek, "gure hizkuntza politikarengan konfidantza eman digulako". "Horrez gain", azaltzen digu Elayko lankideak, "hizkuntza politikaren ezarpenen asko ikasi dugu". Era berean, taldearen barneko komunikazioak enpresa beraren kudeaketa eta antolakuntza hobetzeko lagungarria izan



Elayk ekoitzen dituen piezen adibidea

zaie, "modu orokorrean asko hitz egin dugulako".

Beste enpresei egitasmo honetan abiatzea merezi omen duen galdetuta, "beldurrik gabe merezi duela esan dezakegu eta honetan sartzen dena ez dela damutuko".

## Zer da Bikain Ziurtagiria?

Ofiziala, publikoa eta doakoa den Bikain Ziurtagiriak hiru maila eta kolore ditu, enpresa edota erakunde jakin batek lortu dituen puntuen arabera. 200-399 puntu bitarteko enpresentzat, Ziurtagiria beltza izango da eta euskararen oinarritzko maila egiaztatuko du. Tarteko maila zilar kolorekoa da eta 400-699 puntu bitartean lortzen duten enpresei egokituko zaie. Urrezko kolorea goi mailako euskara frogatzen duten enpresa nahiz erakundeentzat izango da, 700-1.000 puntu bitartekoentzat, alegia. Eusko Jauriaritzak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duten enpresa edota erakundeei ematen dien ziurtagiria dugu Bikain Ziurtagiria.



Haien gailu eta makineria euskaraz erabiliak izaten dira

## ELKARRIZKETA

# IMANOL PRADALES

**Bizkaia:xedeko Zuzendaria**

## “Aditu-ihesaldiak, berez, ez dira txarrak”

Lan talentua bereziki gorde egiten da Bizkaian. Honen adibidea dugu Bizkaia:xede. 2004. urtean sortua, nazioarteko talentuak erakarri eta bertakoak hemen gertatzeko baliabideak eskaintzeko helburuarekin jaio zen. Imanol Pradales Bizkaia:xedeko Zuzendaria Ekonomiarren Kazetaren galderei atsegin ez erantzun digu.

**Sortzaileak babesteko informazio zerbitzua, pizgarri fiskalak eta laguntza ekonomikoak eskaintzen ditu Bizkaia:xedeak. Nahikorik al da gure adituen alde egitea ekiditzeko?**

Guk eskeitzen ditugun zerbitzuak eta diru-laguntzak garrantzizkoak badira ere, kasu batzuetan beste hainbat elementekin osatu behar dira; proiektuaren erakargarritasuna, inguruneak ematen dituen aukerak, etab. Gure laguntza, batez ere, osagaia da.

**Innobasqueko Zuzendariak, Pedro Luis Uriarte, ez du uste euskal aditu-ihesaldirik dagoen. Iritzi berekoa al zara? Bizkaiko talentuak gure artean gertatzen al dira?**

Bai. Guk dauzkagun datuen arabera ihesaldi handiegirik ez dago. 90ko hamarkadan ematen zirenak, orain gelditzen ari dira. Edozein kasutan, esan behar dut ihesaldiak, berez, txarrak ez direla. Estatu Batuetan ere ihesaldiak ematen dira egunero, klabea sarrera eta ihesaldien arteko fluxuetan dago. Fluxu horien emaitzak dira aztertu behar ditugunak eta, zorionez, oraingo emaitzak eta joerak oso itxaropentsuak dira.

**Bizkaia:xede 3TE Proiektuko kidea da. ETEi bereziki zuzenduta, "Teknologia Transferentziarako Talentua" haien enpresetan garatzen laguntzen du. Nola prestatzen dira enpresa hauek euskal garapenera trenatu ez dezaten?**



Bizkaia:xedeak Zamudioko Parke Teknologikoan du egoitza

3TE proiektuak planteatzen duen dinamika berritzailea da. Gure ustez, teknologia transferentziak errazteko dagoen biderik azkarrena eta egokiena, pertsonen bitartez ematen dena da. Horregatik, talentuzko pertsonak atzerriko enpresetara bidali ditugu, teknologia prozesu berriak ikas ditzaten eta, bueltatzen direnean, euskal enpresetan garatu ahal izateko.

**Noizean behin, merkatuko analisiak egiten dituzue. Zeintzu profilen eskari dugu Bizkaian?**

Orokorrean ingeniariak behar ditugu. Baina horiekin batera, biozientzietan, osasun zientzietan (medikuak eta erizainak batez ere), eta kudeaketan diren adituak ere beharrezkoak dira.

**Talentua garatzeko, hezkuntzaren garrantzia ukaezina da. Talentu nahikorik sortzeko hezkuntza egokirik al dugu Euskadin?**

Nire ustez hezkuntza sistemak oinarritzko eraldaketa behar du. Ikerkuntza eza ikaragarria dugu. Gure erakundeetan dozentzia bultzatu da batez ere, ez ikerketa lana. Bestetik, unibertsitate eta enpresaren arteko harremanaz hitzegiten bada

ere, oraindik bide luzea dugu egiteko. Bi mundu horien arteko edukizko elkarlana faltan botatzen da.

**Zer eskaini diezaiokie Euskadik kanpoko aditu bati hona lan egitera erakartzeko?**

Euskadik eskeintzeko gauza asko ditu. Batetik, unibertsitate eta zientzia sistemak berak eskeintzen dituen aukerak, gero eta handiagoak (BERC-ak, CIC erakundeak, etab.). Bestetik, enpresa munduak berrikuntzaren aldeko egin duen apustua. Horiakin batera, gure sare teknologikoak, parkeak, bizitza kalitatea, zerbitzu publikoak, gure cultura, gure pertsonak, etab. luze bat.

**Eusko Jaurlaritzak I+G ardurak gobernu zentraletik Euskadira transferitzea lortu berri du. Nola gauzatuko du eskumen berri hau eta zer nolako eragina izan ditzake euskal talentuetan?**

Detailan nola gauzatuko den oraindik ez dakigu. Urtearen bukaerarako argituko da. Printzipioz, I+G-rako daukagun diru iturria handituko da, eta hau oso inportantea da, I+G alorrean egoki inbertitzeak talentu erakartzen duelako. **Bizkaira gaitasun handiko pertsonen itzulera susper-**

**tzen duzue. Zeintzuk elementu erabil daitezke aditu hori itzultzen animatzeko?**

Proiektu profesionala, lan baldintzak, inguruneak ematen dituen aukerak (garapen profesionalari begira, sareetan parte hartzeko aukerak, bizitza kalitate maila, prestakuntza publikoak, komunikazio azpiegiturak,...).

**Euskadiko hamar ikertzaileetatik hiru besterik ez dira emakumeak. Emakumeek gaitasun handiko lan bizitzak garatzeko zailtasun handiagoak dituzte?**

Zientzaren munduan emakume gutxiago daude, historikoki, unibertsitatean joaten ziren emakumeak gutxiengo zelako. Baina, azken urteetan aldaketa sakona ematen ari da. Are gehiago, momentu honetan emakumeak gehiengo dira unibertsitatean eta horrek ondorio zuzenak erakarriko ditu zientzaren sexuan.

**Nolako al da talentu duen Bizkaiko pertsona baten profila?**

Oso talentu profil ezberdinak daukagu. Zientzalaririk baten besteetan. Biozientzietan adituak, automozio profe-

sionalak, kudeaketa prozesuetan profesionalak, unibertsitateko ikerlariak, teknologoak, etab.

**Hemengo adituak kanpora bidaltzea, berriro bueltatzeko eta han ikasitakoa hemen aplikatzeko euskal erakundeek bultzatzen duten ohitura dugu. Zein izan daiteke erreferente bezala duzen herrialdea?**

Irlandan, Txinan, Indian eta beste herrialde batzuetan horrelako programak planteatu dira. Erreferenteaz ez nuke hitzegingo. Guk bultzatzen dugun programa munduko beste toki batzuetan ematen da.

**EHuko errektoreak, Juan Ignacio Perez, azaldu du zientzia eta teknologia arloan adituak ordezkatzeko "arazo larriak" izango dituela Euskadik datorren urteetan. Zer deritzozu honi?**

Bai, euskal demografiaren prozesuari begira, ordezkapen arazoak izango ditugu, ez bakarrik zientzia eta teknologiaren inguruan. Baita osasun sistemaren ere, edota enpresaren profesionalen begira. Ordezkapenarena euskal gizarteak duen arazoa da.

**Lurralde Historiko bakoitzak gaitasun handiko pertsonak erakartzeko bere programa propioa garatzen du. Ez al litzateke Euskadiren meserako Autonomia Erkidego mailan programa bakarra sustatzea?**

Bizkaia:xede bezalako erakunderik beste lurralde historikoetan ez dut ezagutzen. Nahiko berritzaileak izan gara honetan Bizkaian eta Euskadin ere. Edozein kasutan, egia da honelako proiektu batek, erkidego mailan planteaturik aukera zabalagoak emango litzuzela.

## TEKNOLOGIA

## Konpainiaz aldatzea: portabilitate berriak

Konpainia batetik bestera mugitzearen ondorioz, 18 hilabeteko kontratua sinatzen da: horrek esan nahi du urte eta erdi batez ez dela posible izango konpainiaz aldatzea. Portabilitateak konpainiaz aldatzeko aukera eskaintzen du. Bezeroak bere telefono mugikorraren zenbakia, ordea, mantendu dezake.

Portabilitatearen prozesua luzeena izaten da: batetik besterako aldaketa konpainia-telefonoak berak egiten du, normalean 10 eta 12 egunen inguruan. Konpainia berriarekin kontratua hasten da horren baieztatpena heltzen denean. Hortik aurrera 24 eta 48 ordu inguru gera daitezke bezeroa linea gabe. Yoigo konpainiak 4 egun gehienez jota luza dezake itxaropen hori.

Hona hemen konpainiaz aldatuz eta portabilitatea eskatuz, lortu daitezkeen mugikorrak:

## Orange

IZENA:  
**BlackBerry 8120 Pearl**

BEZERO BERRIENTZAT:  
**109€tik aurrera**

EZAUGARRIAK:  
**3G / TB+BIDEOA /  
BLUETOOTH / MP3 /  
MMS / POSTA  
ELEKTRONIKOA / WI-FI**



## Vodafone

IZENA:  
**Samsung F480V**

BEZERO BERRIENTZAT:  
**139€tik aurrera**

EZAUGARRIAK:  
**3G / TB+BIDEOA /  
BLUETOOTH+USB /  
MP3 / MMS**



## Movistar

IZENA:  
**HTC Touch Diamond**

BEZERO BERRIENTZAT:  
**400€ inguru**

EZAUGARRIAK:  
**3G / TB+BIDEOA /  
BLUETOOTH / WI-FI /  
PDA+Windows Mobile 6.1  
Profesional**



## ARDOAK

## Galiziako mahats altxorrak

Espainiako estatua ardo mota desberdinak eskaintzen dituen lurraldea dugu eta zenbait autonomia erkidegoak ardo aberastasun handia du. Galizia horren adibidea dugu. Mendi berde eta bere gastronomiagatik mundu osoan ezagututa, bost jatorrizko deiturak ditu. Bakoitzeko ardoa gomendatzen dizuegu, zuen afarietan Galiziako altxorraz profitatzeko.

## RIAS BAIXAS

IZENA:  
Terra do Gargalo 2003  
(zuria)

ALKOHOL GRADUAK  
(%vol): 12,5

SALNEURRIA: 9 €

PRIMERAN DOA:  
Pontevedrako itsaskiarekin



## RIBEIRA SACRA

IZENA:  
Mencia Ponte da Boga  
(beltza)

ALKOHOL GRADUAK  
(%vol): 12

SALNEURRIA: 9 €

PRIMERAN DOA:  
labean erretako  
arrainarekin



## RIBEIRO

IZENA:  
Viña Costeira 2006  
(zuria)

ALKOHOL GRADUAK  
(%vol): 11

SALNEURRIA: 6 €

PRIMERAN DOA:  
enpanadarekin,  
Padroneko piperrekin



## VALDEORRAS

IZENA:  
Galiciano Noite 2007  
(beltza)

ALKOHOL GRADUAK  
(%vol): 12,5

SALNEURRIA: 6 €

PRIMERAN DOA:  
txekorrarekin



## JATETXEA

## El Portalón Jatetxea



Jatetxeak Erdi Aroko giroa mantentzen du

Aintzineko posta-etxea, egun jatetxea dugu El Portalón. Gasteizko erdigunean kokatuta, Maria Deuna katedraletik hurbil dago. XV. mendean bidaiarien zaldiak eta gurdiak gordetzeko erabiltzen zen eta birmoldaketa ugari jaso baditu ere, erai-kinak Erdi-Aroko giroa eta izaera mantendu egin du.

Enpresa-afariak nahiz bazkari pribatuarako proposak diren bost jantoki pribatu ditu, aldez aurretik erreserbatu beharrekoak. Bako-

itzak bere izena eta giro berezia du. Jatetxeak jatorrizko izendurako ardoz hornituriko upeltegia eskaintzen die bezeroei eta urtean zehar, ardo-dastatzeak eta ikastaroak antolatzen dituzte, ardoaren berezitasunak guztien eskura jartzeko asmoz. Karta eta menuak betiko gastronomia arabarraren uzta-keta eskaintzen dute, sukalde modernoaren ukituarekin.

Hona hemen Ekonomia-aren Kazetak proposatzen dizun menua:

## Portalo Menua:

## HASIERAKOAK

- Txerri iberiarren urdaiazpikoa
- Odolki-lasagna, babarrun-kremarekin
- Etxeko kroketatxoak
- Ganbak plantxan
- Berberetxoak zartaginean eginda

## BIGAREN PLATERRA

- Txerrikumea, behe-tenperaturan erreta

## AZKENBURUKOAK

- Biskuita txokolate beroarekin

## ARDOA

- Araba Errioxako Ontze

**SALNEURRIA:  
60,5€ pertsona  
bakoitzeko**

El Portalón Jatetxea / Correria Kalea, 147-149 / 01001-Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Telf 945 14 27 55 / Faxe 945 14 42 01 / [www.restauranteportalon.com](http://www.restauranteportalon.com)

# AISIALDIA

## Estresari aurre egiteko proposamena

**Lanak aste osoan zehar eragiten duen estresari aurre egiteko, hona hemen hilabete honetan Ekonomiaren Kazetak proposatzen duen aisialdirako ideia:**

### Anticuario&Spa Hotela (Guadalajara)

Autonomia Erkidego bakoitzak badu bere xarma. Erromatar Inperioak Espaniako estatuan utzitako altxor anitzetako baten bisitaldia izango da hila honetan Ekonomiaren Kazetak egiten dizun proposamena.

Guadalajaran kokatuta, XVIII. mendeko eraikin hau birmoldaketa ugari jasan ditu gaur egun ezagutzen den moduan izatera iritsi arte. Hotela bihurtua, eraikinaren berriztapenak aintzineko elementuak mantendu ditu eta bere logelak pertsonai edo

lurralde historiko batzuei dedikaturikoak dira, adibidez, Carlos III Erregeari edota Txinari, besteak beste.

Hotela Guadalajarako Imon herrixkan kokatua dago. Herrialdeak 40 biztanle inguru ditu eta asteburuko turismoa egiteko oso aproposa da, txikia bada ere, bisitatzeko puntu garrantzitsuak baititu, erromatar garaiko gatzako meatzeak, adibidez. Bi egun diferente eta lasaia igartzeko kontuan hartzeko merezi duen aukera.



Hotelaren eraikina XVIII. mendekoa da



#### Nola heldu:

- Madril-Bartzelonako Nazional II errepidea hartu
- Behin Guadalajara gaindituta, 104. kilometroan Sigüenzarako norabidea har ezazu
- Sigüenza atzean utzita, jarrai ezazu Atienzarako norabidean
- Hamar minutu ondoren, Imon herrialdera helduko zara



Anticuario & Spa Hotela / Real Kalea, 49 / 19269-Imon (Guadalajara) / Telf 949 39 73 11 / Faxe 949 39 74 55 / [www.salinasdeimon.com](http://www.salinasdeimon.com)

#### Astebururako proposamena (bi pertsonentzako):

- Bi gauetarako logela (gosariak barne)
- Afaria La Tahona jatekxan (gaua aukeratu daiteke)
- SPA tratamendua
- Ongietorria emateko xanpain botila

SALNEURRIA: 195,95€ (pertsona bakoitzeko)

#### Zer bisitatu:

- Imoneko gatzagak
- XV. mendeko eliza errenazentista
- Llano de Simas herrialdeko arteko basoa
- Ingurualdeetan: jauregiak, aintzineko elizak, katedralak...

### SUDOKU

Buruari gogor eutsi eta ebatzi sudoku hau

				5			8
		5		1			6
1		8		6			
	7			5			1
		4		1			
						8	3
			2				
6	9			3	7		2
	4						7

# LAN ESKAINTZAK

**EUSKERA IRAKASLEA**  
Euskera irakaslea. \*Ezinbesteko baldintza; lizentziatura edo diplomatura izatea eta EGA. \*Lan kontratua; bitartekoa. \* Lanaldi osoa. Orduetgia: 14: 30 -21: 30

**COMERCIAL**  
Visitas comerciales para la captación de clientes y atención a los que tenemos en la actualidad. Imprescindible experiencia en trabajos comerciales. Buena presencia, amable, trabajador/a. Se valorará conocimientos de euskera, disponibilidad horaria de mañana y tarde.

**TUTOR/A-DINAMIZADORA DE KZ GUINEA**  
Se precisa tutor/a-dinamizador/a de kz guinea- Durango. Imprescindible euskera alto, titulación superior, conocimientos de informática, ganas de trabajar, residencia en la zona y gusto por el trato con personas. Se ofrece contrato de carácter estable y salario 14.300 euros brutos anuales. La incorporación sería inmediata

**AUXILIAR ADMINISTRATIVO/A**  
Asesoría precisa persona para realizar tareas de mecanizado de contabilidades y trámites con las diferentes administraciones. Se ofrece CONTRATO EN FORMACION, inicialmente de 6 meses de duración. IMPRESCINDIBLE: edad entre 18 y 21 años y formación de graduado escolar o equivalente. Se valorarán conocimientos de euskera, buena presencia y don de gentes. Jornada completa, de lunes a jueves de 9:00 - 13:30 y viernes de 8:30 - 14:00 horas. Salario mensual bruto: 600 euros/mes. Incorporación inmediata.

**COMERCIAL**  
Requisitos: estudios FP. II. Con sólidos conocimientos de informática. Imprescindible 1 año de experiencia demostrable en sector consultoría, con buena presencia y un marcado perfil comercial. Se requiere una persona que supere los 28 años de edad con alto nivel de implicación. Funciones: gestión y ampliación de la cartera de clientes mediante visitas comerciales y presentación de ofertas. Carnet de conducir y vehículo propio. Valorable conocimientos de euskera. Jornada completa.

**PROFESOR DE EUSKERA**  
Profesor de euskera para impartir clases. Contrato temporal parcial. 4 horas semanales.

**CONTRAMAESTRE**  
Para G. Vasco. Tareas: Toma datos (sondeo) profundidad mar, niveles altura en tierra, desplazándose a los puertos. Realizar planos, proyectos ejecución obra civil, obra mecánica e instalaciones eléctricas. Conservación y mantenimiento de las obras y propuestas de mejora de los puertos. Imprescindible: Dptura. en Navegación Marítima o Téc. Sup. Realización y Planes de Obra, y PL2. Funcionario interino, mientras dure la vacante. Jornada completa. Salario 35. 643 euros bruto anual. Incorporación inmediata.

**AYUDANTE CAMARERO/A**  
Persona joven con ganas de trabajar. Valorable experiencia en puestos. Horario de 19h a 22h. Valorable conocimientos de euskera. Incorporación inmediata. Salario a concretar con empresa. Contrato temporal.

Lan eskaintza gehiago Lanbide.net Euskal enplegu zerbitzuko webgunean.

#### ERANTZUNAK

7	8	3	9	6	9	4	2	5
5	2	1	8	3	7	4	7	6
1	9	6	4	7	5	2	4	8
3	5	8	5	7	4	7	6	1
9	4	6	1	3	2	7	7	8
2	7	1	4	8	5	6	8	3
2	2	7	9	6	7	9	3	8
4	2	7	9	6	7	9	3	8
6	9	6	9	8	3	3	5	4
8	6	9	6	7	1	7	6	9
7	6	9	2	4	5	1	3	8

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
E-MAILA: ekonomiarenkz@leizaola.org  
POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48080 Bilbao  
TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Tais San José  
MAKETAZIOA: Gonzalo Peña  
EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ilastegia  
EGILEA: Leizaola Elkarte  
HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Ekintza honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaaren Kultura Sailaren  
laguntza jaso du.

# €konomiarenKZ

Euskal Ekonomiaren Kazeta

2008ko Abendua

Lo nuestro es **EL FUTURO**



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

**Lo nuestro es** garantizar un mañana lleno de oportunidades para la juventud de Bizkaia. Un futuro que se construye desde el presente, con programas educativos y de formación, ayudas y subvenciones, propuestas culturales y de ocio. De esta manera, nuestro compromiso es sembrar para recoger, crear riqueza para repartirla en una Bizkaia que cada día es más dueña de su porvenir.

**BIZKAIA**, lo nuestro